

Jardueren Oroitidazkia 2011

SABINO ARANA FUNDAZIOA, 2012ko urtarrila

AURKIBIDEA

- 1.- BEKAK ETA IKERKETEN SUSTAPENA
- 2.- ARGITALPENAK
- 3.- HERMES PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA
- 4.- GOGOETA ETA ELKARRIZKETARAKO MINTZAGUNEA

Mintegiak
Hitzaldiak

- 5.- GAZTERIA
- 6.- EUSKARA
- 7.- ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGI HISTORIKOA
- 8.- EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA
- 9.- SABINO ARANA SARIEN KULTUR JAIALDIA
- 10.- DURANGOKO AZOKA
- 11.- BESTE ERAKUNDE ETA INSTITUZIO BATZUEK ANTOLATUTAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA
- 12.-HEDAPENA ETA KOMUNIKAZIOA
- 13.- LORTUTAKO EMAITZEN BALIOESPENA

1.- BEKAK ETA IKERKETEN SUSTAPENA

1.1.- Alberto Onaindiaren Postatrukea 1936 eta 1945 bitartean

Oso tamaina handiko lan bat da; orain dela bost bat urte hasi zen, eta eginkizuna Vatikanoko Artxiboetan (Erroma) eta Estatuko beste artxibo batzuetan barreiatutako 4.000tik gora dokumenturen bilketa, transkripzioa eta oharpenak egitea izaten ari da. Helburua da, Agirre lehendakariaren laguntzaile izan zen Alberto Onaindia apaizaren 1936 eta 1945 bitarteko postatrukea eta berak Gerra Zibilean zein II. Mundu Gerran egin zituen gestioak berreskuratzea.

2011 osoan azterlanaren denbora-tartea handitu da. Gaur egun egitasmoak apaiz markinarraren lehenengo idazkietatik eta II. Mundu Gerraren amaierara arte hartzen du. Horretarako, dokumentazioa biltzen eta berori transkribatzen jarraitu da. Dagoneko 1923 eta 1941 bitarteko 3.000 dokumentu transkribatu dira.

2.- ARGITALPENAK

(Programarekin egiaztatu)

2.1.- “Errotik harro. Azkoitiko abertzaletasuna, bizipenak eta historia 1907-2007”

Egilea: Raimundo Alberdi.

Sabino Arana Fundazioak Raimundo Alberdik egindako “Errotik harro” liburua argitaratzen lagundu zuen; egileak, zeuden dokumentu urrietan oinarrituz, Azkoitiko abertzaletasunaren ibilbide bat egiten du: hasiera-hasieratan abiatu eta, Gerra Zibileko gertaeretatik eta haren ondorioetatik igaroz, gizartearen zati handi bati bizi-azalpena klandestinitate hartako zenbait pasadizo eta gure herri-nortasuna berreskuratzearen Azkoitian bertan zein Euskal Herri osoan egindako borroka barne.

2.2.- DEIA egunkarirako artikuluak. Euskal historia eta antropologiako askotariko gai zenbaiti buruz Deia egunkarirako kolaborazio gisa idatzitako artikuluak

2011n zehar Sabino Aranak “Euskaldunen historiak” saileko kolaborazioak koordinatu ditu DEIArentzat. Artikulu horietan, alde edo moldez Euskadiren historia moldatu eta zizelkatu duten zenbait gai historiko eta antropologikoren gainean idazten da.

Ekimen horretan Sabino Arana Fundazioak eta Deia egunkariak lankide izan dituzte: Xosé Estevez, Miren Barandiaran, Peio J. Monteano, Txomin Peillen, Gurutzi Arregi, Xabier Kintana, Amaia Basterretxea, José Félix Azurmendi, Txema Montero, Unai Garabieta, Asier Madarieta, Virginia López de Maturana, Juan Carlos Jiménez de Aberasturi, Andoni Sagarna, Xabier Irujo, Eduardo J. Alonso Olea, Juan Pardo San Gil, Iñaki Anasagasti, José Ignacio Salazar, Andrés Iñigo, Josu Chueca, J. A. Rodríguez Ranz, Mikel Aizpuru, Toti Martínez de Lezea, Aitor Esteban, Manu Ruiz Urrestarazu, Joseba Agirreazkuenaga, Josu Mirena Agirregabiria eta Ascensión Badiola, Sabino Arana Fundazioaren beraren teknikari eta historialariez gain.

3.- “HERMES” PENTSAMENDU ETA HISTORIA ALDIZKARIA

HERMES Historia eta pentsamendu aldizkaria Sabino Arana Fundazioak 2001ean abian ipinitako elkarrizketa eta debate ideologiko eta politikorako tresna bat da; hortaz, bada, aldizkariak hamargarren urteurrena bete du.

Harako 2001 hartatik hona Hermes-en orrialdeetan ia bostehun pertsonak kolaboratu dute, hots: politikagintza, pentsamendu, iritzi, ekonomia, kultura, Eliza eta historia arloetako protagonista ugariak. Euskadi, Katalunia, Galizia, Espainia, Europa eta, oro har, mundu osoko pertsona nabarmenek parte hartu duten Hermes-en.

Lehenengo bider agertuz geroztik, aldizkariak guztira 41 zenbaki argitaratu ditu. Elkarrizketa gatazken konponbide gisa, ongizatearen gizartea, euskara eta hizkuntz askotarikotasuna, Euskadi munduan, Islama, Europa, Afrika, Txina, biziaren amaiera, euskal Y, energia, gizarte-ituna, etab. Bizi gaituena eta kezkarazten gaituena; euskaldun gisa, europar gisa, espiritu eta bokazio unibertsaleko emakume eta gizon gisa.



2011n argitaraturiko zenbakiei dagokienez, martxoan 36. zenbakia kaleratu zen, izenburu iradokigarri honekin: *Euskararen auzia: Darwin ala Babel / Euskara a debate: Darwin o Babel*. Euskarari buruzko zenbaki monografikoa bat da, eta bertan kolaboratu zutenak izan ziren, besteak beste: Erramun Osa, Euskaltzaindiko idazkariordea; Joan i Mari Bernat, Kataluniako Generalitateko Hizkuntza Politikarako idazkari ohia; Patxi Baztarrika, Andoaingo Udaleko Euskara zerbitzburua eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuorde ohia; Andrés Urrutia, Euskaltzainburua; Konrado Mugertza, Hezkuntza ikuskatzailea, eta Joxean Muñoz, Tabakalerako zuzendari ohia,. Aldizkariak Anjel Lertxundiri egindako elkarrizketa bat ere bazekarren.



Izenburutzat “*Europa cien banderas?*” (Ehun banderako Europa?) hartuta, uztailan 37. zenbakia argitaratu zen; monografikoa hori ere, eta bertan Europako estaturik gabeko nazioen eginkizuna eta etorkizuna aztertzen dira, honako pertsona hauek parte hartu dutelarik: Klaus-Jürgen Nagel,artzelona Pompeu Fabra Unibertsitateko Zientzia Politikako irakaslea; Anne-Marie Thiesse, Pariseko Zientzia Ikerketarako Zentro Nazionalako ikerketazuzendaria; Xosé M. Núñez Seixas, Santiago de Compostelako Unibertsitateko Historia Garaikideko irakaslea; Ludger Mess, UPV-EHUko Historia Garaikideko katedraduna; eta Leyre Arrieta, Historia Garaikidean doktorea eta Deustuko Unibertsitateko Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko irakaslea. Monografiko berezi horretan, orobat, Guy Verhofstadt Belgikako lehen ministro ohi eta gaur egun Europar Parlamentuko Liberal eta Demokratien taldeko (ALDE) buruari egindako elkarrizketa bat eskaintzen da.



Azaroan, 38. zenbakiaren gai nagusia Energia izan zen. José Luis San Pedro Iberdrola Taldeko Negozioetako zuzendari nagusia; Josu Jon Imaz, Petronorreko presidentea; Eloy Álvarez, Lehiakortasunerako Euskal Institutuko Energia Saileko zuzendaria; Xabier Viteri, Iberdrolaren Energia Berriztagarrietako zuzendaria, eredu energetikoaren erronkak gaiaz mintzatu ziren. Elkarrizketan, bestalde,

Justo Lacunza-Balda arabista eta afrikanista eta Islamari buruzko ikasketetan adituak, dio ezen, “Islamaren munduaren giltza erregimen baten agindupeko izatetik Estatu bateko herritarrak izatera igaro nahia dela”.



Eta abenduan bakeari buruzko zenbaki berezi bat argitaratuko dugu; bakea, urtetan Sabino Arana Fundazioaren lanean, eta halaber, Hermes aldizkarian, ardatz estrategikoa izan den ideia eragilea. Horregatik, aldizkariaren hamargarren urteurrenean bakeak leku berezi bat izan dezan nahi izan dugu. Eta horrexegatik, zenbaki honetan joan den urriaren 5ean Juan Maria Uriarte Donostiako Gotzain Emeritu jaunak Sabino Arana Fundazioan eman zuen *Bakea eta Adiskidetzea* izenburuko hitzaldiaren testua jasotzen da, baita Hermesek 50 kolaboratzailek Euskadi baketsuaren garai berriez eta etorkizunaz egindako gogoeta-esaldi eta arte-lankidetzea bana ere. Zenbaki berezi hau Hermesek indarkeriarik bako Euskadi berri eta baketsu baten alde duen konpromiso pertsonal eta kolektiboaren ikur bat da.

4.- GOGOETA ETA ELKARRIZKETARAKO MINTZAGUNEA

MINTEGIAK:

4.1.- “Energia eta gizarte lehiakor eta jasangarria”



Ekainaren 7an, GOAZ museumen, energia, enpresa, unibertsitate eta beste zenbait esparrutako 40 bat pertsona nabarmenek energiaren gainean jardun zuten, zehazki: bateko, energiak gure erkidegoaren garapenean jokatzeko duen eginkizuna aztertu zuten, eta besteko, energiaren sektoreak aurrean

dituen desafio handiei buruzko gogoeta egin zuten.

Hizlari txosten-emaileak Bilbao Metropoli 30ko presidente **Jose Antonio Garrido** eta Iberdrola Taldeko Negozioetako zuzendari nagusi **José Luis San Pedro** izan ziren.

Mintegian parte hartu zutenen artean enpresa eta teknologia sektoreetako energia-arloko adituak, politikariak, unibertsitate-katedradunak etab, zeuden; aipatzekoak dira honako hauek: **Juan Martín Agirre**, Iberdrola Ingeniaritza eta Eraikuntzako Zuzendaritza Teknikoko zuzendaria; **Roberto Aguado**, EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultateko dekanordea; **Juan José Alonso**, Energiaren Klusterreko zuzendari kudeatzailea; **Jose Ignacio Hormaeche**, EVEko Zuzendari Nagusia; **Alfonso Martínez Cearra**, Bilbao

Metropoli-30ko zuzendari nagusia; **Oskar Zabala**, Eusko Jaurlaritzako Energia eta Meategien zuzendaria; **Idoia Zenarrutzabeitia**, Energiako Batzorde Nazionaleko kontseilaria; eta **José Ignacio Zudaire**, Zabalgarbiko presidentea, besteak beste.

4.2.- Euskal Herriko historialarien II. Biltzarra

Nabarralde elkarteak antolatutako II. sinposio honek, zein, besteak beste, Sabino Arana Fundazioaren laguntzarekin egin baitzen, euskal lurraldeek 1512an betetako eginkizuna hartu zuen gai nagusizat. Oñatiko Unibertsitatean egin zen, irailaren 16, 17 eta 18an. Gogoan dukegun bezala, iaz Bianan egin zen biltzar horren 1. zatia, bertan aditu askok parte hartu zutelarik: historialariak, irakasleak, ikertzaileak, bai halaber Nafarroaren konkistaren gaien interesatutako hainbat ikasle, eta jendea, oro har. Hain zuzen ere, heldu den urtean, 2012an, aipatu gertaeraren 500. urteurrena beteko da.



II. Biltzarraren oinarri-hariak euskal lurraldeek, mendebaldekoek, bereziki, Nafarroako Erresumarekin izandako harremana, eta Nafarroaren bilakabide historikoa markatu zuten gertaera haien azterketa izan ziren.

Biltzarreko gaiak zenbait aditu eta espezialista apartak jorratu zituzten, hala nola: José Luis Orella Unzué Deustuko Unibertsitateko katedraduna; Idoia Arrieta Elizalde Historian doktorea; Xosé Estévez Filosofia eta Letretan doktorea; Xabier Orue-Etxebarria EHUko Paleontologiako katedraduna, eta Ingrid Galster Paderborn-eko (Alemania) Unibertsitateko katedraduna, bertzeak bertze. Egitarauaren osagarri gisa bisita gidatuak egin ziren Eskoriatzako Aitzorrotz gaztelura, eta musikaldi bat ere antolatu zen.

4.3.- Jardunaldiak: “IV. Bilboko elkarrizketak. “Europar Batasuna eta Latinoamerikan garabidean diren herrialdeak: krisia eta etorkizuneko erronkak”



Irailaren 26 eta 27an Europar Demokraten Alderdiko (PDE-EDP) eta Latinoamerikako erakunde kristau-demokrata batzuetako zenbait ordezkari Sabino Arana Fundazioak eta EDPk berak antolatutako IV. Bilboko elkarrizketak jardunaldietan parte hartu zuten.

Izenburutzat “Europar Batasuna eta Latinoamerikan garabidean diren herrialdeak: krisia eta etorkizuneko erronkak” zutela, elkarraldian parte hartu zutenek, besteak beste, munduko ekonomi krisiaren ondorioak eta ezarritako politikak, horien gizarte-ondorioak eta etorkizuneko erronkak eta alternatibak aztertu zituzten, eta azkenean atera zuten ondorea izan zen, “mundu osorako garapen-eredu batek bakarrik ziurta dezakeela krisitik irtetea”. Parte hartu zuten ordezkari politikoen eta adituen artean, nabarmentzekoak dira, besteak beste: **Iñigo Urkullu**, EAJ-PNVren EBBko lehendakaria; **Gutenberg Martínez**, Txileko Miguel de Cervantes Unibertsitateko errektorea eta Txileko Diputatuen Ganberako mahaiburu ohia eta Alderdi Kristau-Demokratikoa (PDC), eta ODCAkoa; **Gonzalo Arenas**, Txileko PDCko nazioarterako idazkaria; **Sebastián Acha**, parlamentari nazionala eta *Patria Querida*ko (Paraguay) buruzagia; **Rolando García** Mexikoren Xangaiko kontsul orokorra; **Óscar Álvarez**, Costa Ricako *Universidad Nacional*eko Nazioarteko Harremanen Eskolako irakaslea; **Antonio Carábula**, Uruguayko Turismo Ministerioko zuzendari nagusia; **Clenia Leal Maranhao**, Brasileko egoeraren ikertzailea eta hirien kudeaketa demokratikoari buruzko aholkularia; **Oswaldo Artaza**, Txileko Osasun Publikoko ministro ohia; **Lourdes Flores**, Perúko *Partido Popular Cristiano*ko presidentea; eta **José Luis Larrea**, Ibermácticako presidentea.



4.4.- "Bake bila baikor: erronka gaindigarria"

Nour Aldin Shehada (palestinarra) eta **Avner Horwitz** (israeldarra) “*Combatants for Peace*” -CFP- (Bakearen aldeko gudulariak) erakunde palestinar israeldar erakundeko kideak eta **Andrea LeBlanc** “*Peaceful tomorrows*” (Bihar-etzi baketsuak) elkarteko kide iparramerikarra “mesfidantza eta beldurra desegin eta bakeranzko urrats bat” egitearen alde mintzatu ziren Bilbon.



Hiru pertsona horiek urriaren 27an Sabino Arana Fundazioak antolatutako "Bake bila baikor: Erronka gaindigarria" izenburupeko elkarraldian parte hartu zuten, bertan zirela, partaide gisa, Lokarriko koordinatzaile Paul Ríos jauna eta, besteak beste, alderdi politikoetako ordezkari batzuk, soziologoak, katedradunak, kazetariak eta, halaber, euskal gizarte-erakunde eta euskal instituzio zenbait.

4.5.- "Europar Batasuneko Arrantza Politika Erkidearen erreforma. Errentagarritasun jasangarria helburu?"

Sabino Arana Fundazioak, Europar Parlamentuko Liberal eta Demokratikoen Taldearekin (ALDE) elkarlanean, lan-mintegi bat antolatu zuen azaroaren 9an, Bilbon, eta bertan elkartu ziren: euskal arrantza-sektorea; Arrantza Politika erkidearen ardura duen Europar Batzordeko zuzendari Ernesto Penas; Europar Parlamentuko Arrantza Batzordeko mahaiburu Carmen Fraga, eta itsasoan edo lehorrean jarduera honi atxikitako jarduera ekonomikoetan lan egiten duten eragileak eta operadoreak.

Jardunaldiaren helburua, sektorea Europako agintariekin kontaktuan ipintzea eta esparru hartako profesionalak Europaren erreforma-proposamenak eta beroriek egiteko arrazoiak bertatik bertara entzun ahal izatea izan zen. Gainera, Europar Batasunaren erakundeetako arduradunei euskal arrantza-sektorearen, Europako arrantza-sektorerik indartsuenetako baten, ordezkariekin elkartzeko plataforma bat ere eman zitzaien.



Jardunaldiko jendaurreko zatian, Europar Batzordeak arrantza-politikaren arloan duen estrategiaren zuzendari Ernesto Penasek eta Eusko Jaurlaritzako Arrantza sailburuorde ohi José Ignacio Espelek, batetik, arrantzontzidiari eta euskal sektoreari gehien eragiten dieten

egitasmoaren alderdiak eta, bestetik, erreforma gauzatzekoan sektore horrek dituen aukerak azaldu zituzten, hurrenez hurren. Gero, Carmen Fragak, Europar Parlamentuko Arrantza Batzordeko mahaiburuak, lan-tailer bat koordinatu zuen; bertan azpisektore guztietako (altura, baxura, ontzi izoztaileak, merkaturatzaileak, nekazaritzako elikagaien industria, etab.) hogeita hamar bat ordezkarik Europar Batasuneko arduradunekin iritziak eta irudipenak elkartrukatzeko aukera izan zuten.

Jardunaldian **Izaskun Bilbao** ALDE Taldeko eurodiputatuak ere parte hartu zuen.

4.6.- "Europa eta garapen-erronkak: Milurtekorako Garapen Helburuez harantzago"

Mende-aldaketarekin batera egin zen Nazio Batuetako Milurtekoaren Batzarrak, inoiz munduan egindako estatuburu edota gobernuburu bilerarik handiena osatzea lortu zuen. Horrenbestez, 2000ko irailaren 8an 189 estatutako ordezkariek Milurtekorako



Adierazpena onetsi zuten; bertan, Nazio Batuen Erakundearenganako eta berorren Kartarekiko “konfiantza berrestea”z gain, helburu batzuk, gerora **Milurtekoaren Garapen Helburuak** izenarekin ezagutuko zirenak, ezartzea erabaki zuten. Lehendabiziko aldia izan zen herrialde aberatsak eta txiroak benetan ados jartzen zirena txirotasuna munduaren arazoa dela eta hura erazteko denak elkar hartuta lan egin behar dela adieraztean.



Europar Demokraten Institutuak eta Sabino Arana Fundazioak elkarraldi bat antolatu zuten azaroaren 17an eta 18an, Innobasqueko Programetarako zuzendari Paul Ortegak koordinatuta. Jardunaldiotan politikariek eta erakunde eta

instituzioetako ordezkariak, guztira hogeita hamar batek, parte hartu zuten garapenaren erronkak aztertzeke eta, proposamen-sail baten bitartez, gako batzuk emateko, Europak bere mundu mailako konpromisoei uko egin ez diezaien, ez bertan behera utzi, ezpada ze, bai aldiz, garapena xede, gauza izan dadin 2015eko ikusmugaz harantzago agenda bat bultzatzeko eta Milurtekorako Garapen Helburu horiek sustatzeko.

Adituen artean egon ziren, besteak beste: **Fernando Casado**, Garapenerako Aliantzen Zentroko (GLOBALCAD) zuzendaria; **Iñigo Macías-Aymar**, CIDOBeko ikertzailea; **Oladiran Bello**, FRIDE ikertzailea; **Jean Marie Beaupuy**, Europarlamentari ohia, Reims-eko zinegotzia eta IEDren ordezkaria (Frantzia); **Daniela Drobnà**, IEDren ordezkaria (Eslovakia); **Saioa Magunazelaia**, Afric Forum; **Elsa Fuente**, UNICEFekoa; **Diego Ercolani**, IEDren ordezkaria (San Marino).

4.7.- “Hiru harroin, lotura bat: Artea, Zientzia eta Teknologia”



Helburu nagusitzat Artearen Zientziaren eta Teknologiaren artean dagoen lotura aztertzea hartuta, Sabino Arana Fundazioak eta Creativity Zentrum-ek jardunaldi bat antolatu zuten azaroaren 30ean, Fundazioaren egoitzan, hiru arlo horietako eta “Consilience” deritzon ezagutzaren unitateko aditu zenbaitekin.



Jardunaldian **Anna Dumitriu** artista britainiarra eta Ez Beharrezko Zientzien Institutuko zuzendaria, **Enrique Amezua**, Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoko zuzendaria, **Gustavo Ariel Schwartz**, CSICeko zientzialari titularra Donostiako Materialen Fisikako Zentroan, eta **Agustín Ramos**, EHUko Arte Ederretako Fakultateko katedraduna mintzatu ziren, bakoitza bere ikusmoldearekin, baina guztiak erlazionatuta. Materialen zientzia, mikrobiologia, ingeniari, artea, filosofia eta berorien arteko loturak izan ziren debatearen gunea.

Arte, zientzia eta teknologia. Jakintza-adar horiek gutako askorentzat bakoitzak bere konpartimendu estankotan izan dezakete zentzurik, baina korapilotsuagoa gertatzen zaigu haien arteko erlazioak ikusteko eta beraien arteko loturak adierazteko ariketa. Hala ere, kontua ez da hainbeste haien arteko lankidetzat bat edo, beste barik, kontakturen bat gertatzea, ezpada ze bereizten dituzten hesiak eraistea eta batzuk besteetan integratzeko gauza izatea, hau da, beraien artean eten gabeko fluxu bat egotea. “Jakintza-adarren arteko zehar-lerroak” oinarri, eta ez “Jakintza-adar asko”, bertan zen batek esan zuen bezala. Horrek mentalitate-aldaketa eskatzen die zientzialariei, artistei, teknologoei, ingeniariari, gerenteei, politikariei...



Jardunaldia LEGO SERIOUS PLAY batekin amaitu zen, halako eraz non, parte-hartzaileek ikusmolde berri horretaz entzun zutenaz hausnartu zuten eta, Arte, Zientzia eta Teknologiarenekin arteko lotura hain berezi hori praktikan ipiniz, proposamenak eta irtenbideak planteatuko zituzten.

HITZALDIAK ETA MAHAI-INGURUAK:

4.8- Utopia gertagarriak hitzaldi-sorta. Iñigo Urkullu



“Utopia gertagarriak” hitzaldi-sortaren barruan, EAJren EBBko lehendakari Iñigo Urkulluk 2011ko apirilaren 7an Sabino Arana Fundazioaren GOAZ museum zentro berriko Agirre Lehendakaria Aretoa inauguratu zuen.

Buruzagi jeltzaleak bere hitzaldian, gertakariei aurre hartuz, zera nabarmendu zuen: “urtebete eta erdi baino gehiago ETaren atentaturik gabe”, bere nahia adierazteaz batera, hots: “hori gauza iraunkorra izatea” eta “bake-egoera hasiberri hau” behin betiko izatea.

4.9.- Utopia gertagarriak hitzaldi-sorta. Iñaki Azkuna

2011ko apirilaren 14an Iñaki Azkuna Bilboko alkateak Bilboren etorkizunaz hitz egin zuen; zenbait asmo jakin eragin zituen, besteak beste: hurrengo lau urteetan Termibus lurperatzea; azalean 2.000 aparkaleku eraikitzea, eta udal barrutietan 200 jarduketari ekitea Auzoetarako 2011-2015 Planaren barruan.



Orobat, euskal instituzioek Solomon R. Guggenheim Fundazioarekin zuten hitzarmenari buruz ari zela, zera esan zuen, “barregarria deritzat urrezko arrautzen oiloa akabatzea”.

Azkunak gogorarazi zuen, gainera, Museoa “euskal instituzioen apustu bat izan zela, jende guztia kontra zegoela”, eta “Guggenheim Fundazioaren sostengua funtsezkoa dela”. Era berean, “gure nazioarteko ikono”tzat jo zuen Museoa.

4.10.- "Energia eta gizarte lehiakorra eta jasangarria"

Izen horrekin 2011ko ekainaren 7an antolatutako mintegiaren barruan, **José Antonio Garrido** Bilbao Metrópoli 30eko presidentek eta **José Luis San Pedro** Iberdrola Taldeko Negozioetarako zuzendari nagusiak jendaurreko hitzaldi bana eman zuten goizean (9:00 eta 10:30 bitartean). Iberdrola Taldeko Negozioetako zuzendari nagusiak politika energetikoaren oinarritzko helburuak aztertu zituen eta, era berean, modu objektiboan azaldu zituen elektrizitatea ekoizteko iturri bakoitzak dituen alde onak eta eragozpenak.

San Pedro jaunak alderdi bi nabarmendu zituen: bateko, energiaren sektorea bizitzen ari den eraldakuntza sakona eta, besteko, behar diren azpiegitura berriak eraikitzeak eskatuko duen diru kopuruaren itzala. Ildo horretan, adierazi zuen, “política energetikoa definitzerakoan, indar politiko guztiak ados jarrita egin beharko dela eta, gainera, egonkorra eta gardena izan beharko duela eta herritarren hobespenak islatu beharko dituela”.



Bilbao Metr6poli 30ko presidente Jos6 Antonio Garrido jauna, bere aldetik, Euskadin “itzalen bat edo beste antzematzen den egoera batean abiatutako” agertoki orokor bati buruz mintzatu zen; itzal horiek izango lirateke, besteak beste, “Euskadiko industria-ehuna desagertzea, ekipo-ondasunak fabrikatzen dituzten nazioarteko enpresak agertzea, etab.”; baina baita Herriak badauzkan aktiboak ere baliozkotu zituen, hala nola, kokapen geografikoa, Frantzia eta Espainiaren arteko lotura, aerosorgailu eolikoak fabrikatzeko



duen gaitasun bere-berea, ondasun-ekipo elektrikoetako enpresak, oro har, etab., hain zuzen ere “aktibo multzo horrek egiten du, Euskadin energia-zerbitzuetako enpresen sektore aurreratu eta lehiakorra edukitzea”, nabarmendu zuen. Bilbao Metr6poli 30ko presidenteak proposamen handi bi egin zituen: batetik, “sektore elektrikoan,

ikuspegi globala edukita, I+G+B dinamizatzearen alde egitea ekipo-ondasun elektrikoetako enpresetan bermatuta, eta bestetik, munduan liderra izatera ere iritsi litekeen euskal talde bat eratzea.

4.11- Mahai-ingurua: “Europar Batasuna eta Latinoamerikan garabidean diren herrialdeak: krisia eta etorkizuneko erronkak”.

Sabino Arana Fundazioak eta Europar Demokratikoen Alderdiak (EDP-EDA) “Bilboko elkarriketak” topaketan laugarren aldia antolatu zutelarik, irailaren 27an “Europar Batasuna eta Latinoamerikan garabidean diren herrialdeak: krisia eta etorkizuneko erronkak” izenburupean, mahai-inguru bat antolatu zen Fundazioaren **GOAZ** museum zentroan, garabidean diren hiru herrialderen ikuspegitik krisiaren gaiaz hitz egiteko; herrialde horiek izan ziren; Brasil, Mexiko eta Txile. Eta hizlariak izan ziren: **Gutenberg Mart6nez**, Miguel de Cervantes Unibertsitateko errektorea, Txileko Diputatu Ganberako, Txileko Alderdi Kristau Demokratikoa eta ODCEko mahaiburu ohia; **Clenia Leal Maranhao**, Brasilen egoeraren ikertzaile eta hirien kudeaketa demokratikoari buruzko aholkularia, eta **Rolando Garc6a**, Mexikoren Xangaiko kontsul nagusia, Mexikoko Immigrazio Institutu Nazionaleko Nazioarteko harremanen koordinatzailea eta diputatu federal ohia.



4.12.- Utopia gertagarriak hitzaldi-sorta. Juan M^a Uriarte



Urriaren 5ean Juan Maria Uriarte Donostiako Gotzain Emerituak adierazi zuen, ETArek amaiera dela eta euskal gizartea itxaropentsu ikusten zuela, eta nabarmendu zuen, halaber, “Adiskidetzea beharrezkoa dela, baketzea benetakoa eta osoa izan dadin”.

Juan M^a Uriarteren aburuz, adiskidetzea ez da “atzo etsai zirenak orain adiskide egitea. Ezta bidegabekeriez eta eragindako sufrimenduaz ahaztea ere. Ezta ere, aurka egondako aldeek interpretazio berdina izatea bizi izan duten aurkamenduaren izaeraz eta jatorriaz”.

Monsinore Uriarteren ustez, “adiskidetzaren funtsezko osagaia harreman-era suntsizaile bat baztertzeko borondate errime eta iraunkorra da, bai halaber, erabakitasunez bereganatzea iragana garbitzeko, oraina eraikitzeko eta etorkizuna prestatzeko modu eraikigarri bat”.

4.13.- Utopia gertagarriak hitzaldi-sorta. Nuria López de Gereñu



Confebaskeko idazkari nagusi Nuria Lopez de Gereñuk urriaren 14an “Valores que construyen proyectos - Egitasmoak eraikitzen dituzten baloreak” izenburuko hitzaldia eman zuen; bertan esan zuen, besteak beste, orain jasaten ari garen abagune zail eta nahaspilatsu hau gainditzeko, “gizarte gisa, enpresa gisa eta norbanako gisa ditugun balioak sustatu eta bultzatu behar ditugula”.

Geure sustraietan eta kulturaren kokatutako balioez gain, hala nola: ahalegin partekatua, publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlanaren bultzada erabakigarria, birsorkuntzaren, berrikuntzaren eta lehiakortasunaren aldeko gizarte-apustua, geure aukerekiko konfiantza, aldaketak sustatu eta berorien buru jartzen direnenganako eta haiek gauzatzen dituztenenganako sostengua eta horrelakoez guztiez gain, Confebaskeko idazkari nagusiak adierazi zuen, “enpresa-balioak (zuhurtasuna, arduratsutasuna, irmotasuna,



hobetzeko jorana eta irau handia, apaltasuna, arriskuak bereganatzeko gaitasuna, zintzotasuna, urratsez urrats joatea, begirada luzea, jarraikitasuna, ondo egindako lana...) direla euskal gizarteak bultzatu behar dituenak, baldin eta oraingo krisitik irten nahi badu eta, eratzen ari den nazioarteko ordena ekonomiko berriaren barruan, bere garapena eta etorkizuna elikatzen segitu nahi badu”.

Ildo horretan, gogorarazi zuen, “Euskadik lehenago ere bizi izan dituela une korapilatsuak, eta badakigula, hain zuzen ere balio horiek lagundu diotela lehen baino indartsuago suspertzen”.

4.14.- Mahai-ingurua: Bake bila baikor: erronka gaindigarria

Nazioarteko esparruko zenbait talde eta kolektibo bakezalerekin lankidetzan aurreko urtean abian ipinitako ekimenari jarraipena emanez, urriaren 2011ko 27an “Bake bila baikor: erronka gaindigarria” izenburudun beste elkarraldi bat antolatu genuen.

Terrorismoak eragindako samina adiskidetzeko bake bilakarazten lan egiten duten nazioarteko esparruko erakunde bakezale zenbaiten ordezkari batzuek euren bizipenak kontatu zituzten Bilbon.



Nour Aldin Shehadak, zein Tulkarem errefuxiatu-kanpamenduan jaio baitzen, Lehenengo Intifadan parte hartu zuen, Fatah-ko kidea ere izan zen eta, gero, palestinarren bigarren indarrezko matxinadaren ostean, arabiarrek eta israeldarrek osatzen duten CFP erakunde bakezaleko kide egin zen.

Indarkeriatik indarkeriarik ezera igarotze hura etorri zen, berak azaldu bezala, konturatu zenean israeldarrak ere “gizakiak zirela, beraiekin hitz egin nahiz lan egin dezakegula”. Ildo horretan, gatazkan dauden alde biek “elkar

hartuta lan” egitearen alde agertu zen, indarkeriatik urruntzeko, zeren jokabide hark “ez dakar bakea, gorrotoa sortu besterik ez baitu egiten”.

Antzeko berbekin mintzatu zen **Avner Horwitz** israeldarra ere, zein, Shehada bezala, CFPko kidea baita. Aipatu erakundearen israeldar ataleko komunikazio arduraduna da Horwitz, baita beste egitasmo batzuetakoa ere. Samuel Horwitz-en, Egipton 1990eko otsailaren 4an turista israeldarren kontra egindako eraso terroristaren batean hildakoetako baten, seme honek sei urteko zerbitzua egin zuen israeldar armadan.



Bere aldetik, **Andrea LeBlancek**, zeinen senarra irailaren 11n Dorre Bikien aurka jo zuten hegazkinetako bigarreanean hil baitzen, aitortu zuen ezen, berak, atentatuaren ondoren, “samina bakearen aldeko ekintzak bihurtzea” aukeratu zuela, eta

nabarmendu zuen, halaber, gatazkek “gizateria kolokan” ipintzen dutela eta, beraz, gizarteak txikiei “indarkeriaz haraindi bestelako mundu bat badela posible” jakinarazteaz arduratu behar duela.

4.15.- Mahai-ingurua: "Europar Batasuneko Arrantza Politika Erkidearen erreforma. Errentagarritasun jasangarria helburu?"

Jardunaldiko jendaurreko zatian, Europar Batzordeak arrantza-politikaren arloan duen estrategiaren zuzendari **Ernesto Penasek** eta Eusko Jaurlaritzako Arrantza sailburuorde ohi **José Ignacio Espelek**, batetik, arrantzontzidiari eta euskal sektoreari gehien eragiten dieten erreforma-egitasmoaren alderdiak eta, bestetik, erreforma gautzerakoan sektore horrek dituen aukerak azaldu zituzten, hurrenez hurren.



5.- GAZTERIA

5.1.- “Balía itzazu, zeu baliogabetu barik. Internet eta gizarte-sareak”

Internetek dagoeneko 2.100 milioi erabiltzaile ditu mundu osoan. Adituen iritziz “tresna zoragarri bat da; planeta osoko biztanleekin denbora errealean harremanetan jartzea ahalbidetzen digu, baina “horrek bere arriskuak ere baditu”.



Arrisku horiez eta Internet eta gizarte-sareak arduratsu erabiltzeaz hitz egiteko, Sabino Arana Fundazioak azaroaren 18an elkarraldi bat antolatu zuen DBHko 400etik gora ikaslerekin (Begoñazpi, Somorrostro Irakas Gunea, Gernikako Mertzede ikastetxea, Zalla - Mimetiz eta Txurdinaga Bekoa Institutua); jardunaldia goizez egin zen Euskalduna jauregian, honako aditu hauek parte hartuta: **Gemma Martínez**, Euskal



Herriko Unibertsitateko ikertzailea eta EU Kids Online europar egitasmoko kidea —egitasmorretan 18 herrialdetako lantaldeak parte hartzen ari dira—; **Francisco Ruiz Antón**, Googleren Politika Publikoetarako eta Gai Instituzionaletarako zuzendaria, eta **Iker Merodio**, Kazetaritzako doktorea eta IKT gaietan aditua; azken horrek moderatzaile ere jardun zuen.

Gemma Martínezek Interneten dauden arriskuak eta kalteak izan zituen hizpide, adinez txikiaren ikuspegitik eta helduenarekin (gurasoak eta irakasleak) erkatuta.

Aurki ditzaketen arrisku handienez ohartarazi eta aholkatu zituen: *ciberbullying* (txikien arteko jazarpena), pornografia, *sexting* (txikien arteko jazarpena sexuzko edukiak erabiliz), ezezagunekin geratzea, etab. Eta aholkuak tankera honetakoak izan ziren: “Internet ona da, baina zuhur nabigatu behar da”, edo “arazoak agertzen direnean, onena gurasoekin eta irakasleekin hitz egitea da”, besteak beste. Baita onartu zuen ere, ondo kontuan eduki behar dela Internetek “gizarte-sareek baino gauza gehiago eskaintzen dituela”.

Bestalde, Francisco Ruiz Antónek azpimarratu zuen, Interneten mundua sakelakorantz lerratzen ari dela eta, beraz, txikiak sarean sartzea gurasoen kontroletik kanpo geratzen hasi dela. Sarean esperientzia segurua edukitzeko aholkuen artean, honako hau, argi eta garbia: “bizitza errealean egiten ez duzuna, ez ezazu egin birtualean”.

Arratsaldean jardunaldia Sabino Arana Fundazioaren GOAZ museum-era lekualdatu zen; elkarraldi horretan ere berriro egon ziren hiru adituak, baina oraingoan gurasoekin eta irakasleekin, zeintzuei biziki interesatzen baitzitzaien ezagutzak zabaltzea, gero gazteekin partekatu ahal izateko.



5.2.- Asti libreko tailerrak

2011ren azken aldera gure lehenengo “Gabonetako Tailerra” antolatu genuen Bilboko instalazio berrietan. “Diseinatu zeuk zeure kamiseta” izenburupean, 7 eta 12 urte bitarteko hainbat umek parte hartu zuten, euren sormena bizkortzera bultzatzen zituen ekimen horretan.



6.- EUSKARA

Euskararen atalaz denaz bezainbatean, gure artean hizkuntza sendotzen joateko irizpideak aplikatzen eta hartarako jarduerak garatzen jarraitu dugu.

Ildo horretan, ekin berezia egin zen teknologia berrietako euskara-erabilpenari (batez ere gazteen erabilpenari) buruzko gogoetan, bai eta gazteek eta nerabeek hura nola erabiltzen duten aztertzen. Helburu horrekin, bada, jardunaldi bat antolatu zen, goizez, Bilboko Euskalduna jauregian, eta arratsaldean, Sabino Arana Fundazioaren egoitzan, beste elkarraldi bat egin zen gurasoekin eta hezitzaileekin.

Muskiz, Gernika, Zalla eta Bilboko DBHko hainbat ikaslek parte hartu zuten, eta bertan eskualde horietan euskararen erabilpenak izandako hazkundera aztertu zuten, bai halaber ikasleek nola erabiltzen duten euskara bera.

Goizeko elkarraldian 14 eta 16 urte bitarteko 400 bat ikaslek parte hartu zuten: haietako % 47, mutilak, eta % 53, neskek.

7.- ABERTZALETASUNAREN AGIRITEGI HISTORIKOA

Laburpena zenbakitan. 2011ko BERRITASUNAK

- 1.647 liburu berri LIBURUTEGIAN (2010ean 944)
- 723,74 € dokumentazioaren erreproduzioengatik eta kopiengatik
- 262 kontsulta jaso dira (iaz, 278)
- 96 aldizkari-izenburu berri HEMEROTEKAN, denetara 3.000 ale (2011n 140 eta 5.000, hurrenez hurren)
- 65 kutxa ARTXIBO-dokumentazio antolatu dira
- 44 ikertzaile aretoan (58)
- 44 dohaintza; horietatik 22 dohaintza-egile berrienak (2010ean 51 eta 18)
- 38 kutxa berri artxibo-dokumentazioarekin, inbentarioa eginda; 4,75 metro lineal (2010ean 11 kutxa eta 1,30 m) okupatuta; 17 dvd, 19 cd, grabatutako zinta magnetiko 2, eta 4 kasete-zintza.

7.1.- AGIRITEGIAN EGINDAKO LANAK

A) ARTXIBOKO DOKUMENTAZIOA.

Agiritegia Bilbora lekualdatu delarik, Artean Urruneko Gordailu bat eratu da erregistratuko bako eta gainetik deskribatutako funtsekin; 260 bat metro lineal hartzen ditu.

Bilbon bilduta eta gordeta dagoen artxibo-dokumentazioarentzako gordailuak, bestalde, 690 metro linealeko edukiera du, eta orain artean 354 daude hartuta.

Bilbora ekarriak izan ondoren, eskuz idatzitako zenbait inbentario transkribatu (mekanizatu) dira.

Dohaintza zaharrak eta BERRIAK erregistratu dira (**1346** kutxatik aurrera).

Agiritegian 2011n zehar sartutako dokumentazio berria 38 instalazio-kutxatan (4,75 metro lineal) bildu da.

Honako dokumentazio hau antolatu eta deskribatu da:

- *Comité Nacional de Ayuda a España* (CNAE) — Espainiari Laguntzeko Batzorde Nazionala—
- Bizkai Buru Batzarra – BBB- (1997-2000) [Lehenengo zatia]

Urte horretan, halaber, Agiritegia kudeatzeko programa informatikoa aldatu dugu; ordura arte zegoen informazio guztia aplikazio berrira migratu da. Sistema berria ikasi ondoren (prestakuntza-ikastaroa eta beste), 2012an eten gabe erabiliko da.

B) BIBLIOTEKA FUNTSAK

Abertzaletasunaren Agiritegiaren Liburutegian 2011/12/31 bitartean erregistraturiko monografiak **38.797** izan dira. Urtebete horretan beste **1.647** obra erregistratu dira, hala datu-basean (deskripzioa), nola fisikoki apalean ipinita.

Artean 1992az geroztik bildutako agiri-funtsen balioespena eta sailkapena, bereziki Liburutegia osatzen duten liburukiei dagokienez, xehetasunez egin beharreko lana izan zen, gero martxo-apiriletan Bilbora egoerarik onenean eramana izateko.

Bilboko instalazioetan erabilgarri dugun lekuaren (576 metro lineal) beharrianak eraginda, liburutegiko obrak ale kopuruaren, gaiaren eta edukiaren arabera birsailkatu ziren. Horrenbestez, Bilboko gordailuan obra bakoitzaren ale bat bakarrik gordetzen da, beti ere baldin eta haren gaia eta edukia, gure biblioteca espezializatuak ezarritako irizpideen arabera, han egotekoak badira.

2011n Artean urruneko liburutegi bat eratu da; bertan, orain artean, 9.464 lan daude (bizkar-ohar berriak ipinita).

C) "UZZURRE" HEMEROTEKA

Urtean zehar jasotako aldizkako agerkerien aleak erregistratzen eta katalogatzen jarraitu da. 2011n lehendik ez zeuden beste **96** izenburu sartu dira Hemerotekan. "Uzzurre" hemerotekaren gordailuak 500 metro linealeko edukiera du, eta orain arte **6.445** izenburu desberdin ditu, guztien artean 160.000 ale (iaz baino 3.000 gehiago) direlarik.

"Hustuketa" datu-basean (zenbait aldizkaritan argitaratutako informazio historikodun artikuluekin: *Euzkadi, Alderdi, Hermes, Deia*, etab.) dagoeneko **4.925** erregistro daude.

7.2.- KONTSULTAK - AHOLKULARITZA HISTORIKO-DOKUMENTALA – LANKIDETZAK – JARDUNALDIETAN PARTE HARTZEA- EDITORIALA

- Kontsultak:

Abertzaletasunaren Agiritegian **262** informazio-eskaera jaso dira 2011n, dela posta arruntez, dela posta elektronikoz, web orriz, telefonoz, faxez, nahiz aurrez aurre). 1992tik honako zenbaketa orokorrak dio, guztira 3.095 kontsulta jaso direla.

- **Aholkularitza** historikoa eta dokumentaziozkoa:

- . Hermes aldizkarirako artikulak
- . DEI Arako artikulak (efemerideak)

- Jardunaldietan parte hartzea

Euskal Bibliografiaren I. Biltzarrean parte hartu zen, Zarautzen, 2011/04/01ean.

- Argitalpen-kontrola

. “Errotik harro. Azkoitiko abertzaletasuna, bizipenak eta historia 1907-2007”. Egilea: Raimundo Alberdi.

. “*Apuntes sobre el nacionalismo vasco en Mungia (1892-1936)*” —Mungiako euskal abertzaletasunaren gaineko jakingarriak—. Egilea, Iñaki Larrinaga.

. “*Niños vascos evacuados a Gran Bretaña (1937-1940)*” —Britainia Handira ebakuatutako euskal umeak—. Egilea, Gregorio Arrien

7.3 .- PARTIKULARREN DOHAINZAK

Artxibo-materialetan 2011/12/31 bitartean izan ditugun dohaintza-emaileak 1.314 izan dira. Urte horretan **44** pertsonak lagundu zioten Abertzaletasunaren Agiritegiari, dohaintzak eginez. Azken kopuru horretatik 22, dohaintza-emaile berriak izan ziren.

7.4.- IKERTZAILEAK

2011n gure agiri-funtsak **44** ikertzailek kontsultatu dituzte aretoan. Haien izena eta gaiak honako hauek izan dira.

8.- EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOA

8.1.- URTEKO BALANTZEA

Joan den ekitaldian, 2011n, GOAZ MUSEUM - Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoak bere jardunaren zatirik handiena museo-materialak bere lehengo Artea Arratiako egoitzatik Bilboko instalazio berrietara lekualdatzen eta, era berean, Artean gordailuan geratu den materiala antolatzen eman zuen.

Aldi berean, funtsen zati bat antolatzeko lanetan ere jarraitu da, baita dohaintzen ondoriozko material jaso berriak antolatzen ere.

Bestalde, hurrengo funts hauen inbentarioa egiteari ekin zaio:

- Ehungintzako funtsa: dagoeneko berrinstalatu da Bilboko gordailu berrietan Artea Arratiatik lekualdatutako material guztia, bai halaber eskuratutako material berriak.
- Argazki-funtsa: 1.000 irudi baino gehiago erregistratu eta katalogatu dira, eta guztiei “Sabino Arana Fundazioa” zigilu-moldea txertatu ere bai.
- Partikularren dohaintzei dagokien funtseko irudiak erregistratu, katalogatu eta digitalizatu dira, zigilu-moldea txertatzeaz gain.

- Erregistraturiko irudien deskribapen fisikoa eta kontrastezko tratamendua.
- Identifikatzaileen inbentarioa, artapen-egoera, kopien zenbakiak, etab.
- Irudiak indexatu, bakoitzari dagokion testu-fitxan.
- Argazki-albumetan instalatu dira, tamainaren, artapen-egoeraren, eta abarren arabera euskarri egokietan, ph neutroko tamaina desberdinetako gutun-azaletan ipinita, dagokion irudiari egokitua horietako bakoitza.

- Eranskailuen bilduma: jaso diren berriak katalogatzen jarraitu da.
- Horma-irudien bilduma: Eranskailuen bildumarekin egin bezala, material jaso berrien inbentarioa egiten jarraitu da, idazpen berriak eginez, eta argazki digitalaren bitartez erregistratu dira.
- Diskografia: 450 pieza baino gehiago erregistratu eta artapen hobea egitea ahalbidetzen duten euskarrietan instalatu dira.
- Txartelen bilduma: 50 idazpen baino gehiago deskribatu eta digitalizatu ditugu.
- Bestalde, dekorazio-arte, armategi eta beste arlo batzuetako materialaren 900 idazpenetik gora erregistratu eta instalatu ditugu.



Deskribatu eta inbentarioa egindako funtsei dagokienez, nabarmendu behar da ze, joan den 2011ko ekitaldian zehar GOAZ MUSEUM — Euskal Abertzaletasunaren Museoa ia 200 kontsultari erantzun diela.



Atal honetan, nabarmentzekoa da, halaber, eranskailuen, egutegien, horma-irudien eta txartelen bildumetan gertatu den gehikuntza, batez ere bildumagileek egindako ekarpenei esker gertatu dena, bide batez haiek gure dohaintza-emaileen multzoa handitu eta ugartu dutelarik.

Gaur egun, 2011n jasotako dohaintza garrantzitsuen inbentarioa egiten ari gara, bai eta dagozkien euskarrietan instalatzen. Ildo horretan, nabarmentzekoak dira funtsetarako berreskuratu diren materialak: argazkigintza, armagintza, ehungintza, dekorazio-arteak, arte grafikoak, etab.

Aldi baterako erakusketei dagokienez, gure parte hartzea gai desberdinetako zenbait erakusketarako ehundik gora pieza lagatzea izan da.

Beste alde batetik, 2011ko eskaintza didaktikoa Bilboko instalazio berrietan 7 eta 12 urte bitarteko umeentzako tailerrak abian ipintzean gauzatu da. Zehazki, joan den abenduan egin zen tailerlean adin horretako ume-talde bik parte hartu zuten: goiz bitan zehar euren sortzaile-aldea agerrarazi zuten bakoitzak bere kamiseta diseinatuz. Gaur egun ahozko historiako tailerrak (12 eta 17 urte bitarteko neska-mutilentzat) antolatzeko zereginetan ari gara, ikastetxeekin elkarlanean luze gabe abian ipini ahalko ditugulako itxaropenarekin



8.2.- KONTSULTAK, LANKIDETZAK ETA MAILEGUAK

GOAZ MUSEUM – Euskal Abertzaletasunaren Museoak 2011 osoan 170 kontsulta baino gehiago jaso ditu; horrezaz gain, 500 irudi ere hornitu dizkie bai partikularrei, bai ikertzaileei, nahiz hedabide eta erakunde zenbaiti.

Orobat, ikertzaileen aretoan hamabi bat azterlari zerbitzatu ditugu, eta han argazki-funtsak zein dekorazio-arteak kontsultatu ahal izan dituzte.

100etik gora gauzaki edo material laga edo mailegatu dira honako erakusketa hauetarako:

- " *Agirre lehendakaria eta bere gobernuak* ", Eusko Jaurlaritzak antolatua.
- " *Kapelak eta kapelagintza garaikidea* ", La Encartada Museoak antolatua
- " *Gerra zibilaren aurreko biktimak* ", Zarauzko Udalak antolatua.
- " *Jose Antonio Agirre* ", Bilboko Athletic Club-en Museoak antolatua



8.3.- TAILER DIDAKTIKOAK ETA JARDUERAK

- **abenduaren 28an eta 29an:**



GOAZ MUSEUM - Euskal Abertzaletasunaren Museoak dagoeneko ipini du abian bere Bilboko egoitzan eskola-umeentzat antolatzen dituen didaktika- eta historia-tailerren egitarau berria.

Zehazki, 2011ko abenduaren 28 eta 29an, asteazken eta ostegunean, hurrenez hurren, Bilboko Moraza plazako instalazio berrietan, lehenengo “Gabonetako Tailerra” antolatu genuen. “Diseinatu zeuk zeure kamiseta” izenburupean egin zen jarduera hartan 7 eta 12 urte bitarteko zenbait ume, opor-sasoian zeudela, euren sormena bizkortzera gonbidatu genituen.

Tailerrak 11:00 eta 14:00 bitartean egin ziren.

8.4 ALDI BATERAKO ERAKUSKETAK

- **“HERMES 10” erakusketa**

GOAZ MUSEUM - Euskal Abertzaletasunaren Museoak bere aldi baterako erakusketentzako erakustaretoa inauguratu zuen bere egoitza berrian, Moraza plazan, horretarako *HERMES 10* erakusketa paratuz.

Erakusketaren xedea Fundazioak argitaratzen duen Hermes pentsamendu eta historia aldizkariaren X. urteurrena oroitzea eta ospatzea izan zen. Erakusketan bertatik bertara nahiz *on line* ikusi ahal izan ziren Hermeseko 50 kolaboratzailek garai berriaz eta Euskadi baketsuz eta bestez egindako gogoeta-esaldi bana, bai eta kolaborazioak, elkarrizketak, arte-lankidetzak, etab.



8.5.- EUSKAL ABERTZALETASUNAREN MUSEOARI PARTIKULARREK EGINDAKO DOHAINTZAK



2011n zehar GOAZ MUSEUM – Euskal Abertzaletasunaren Museoa 900 pieza baino gehiago eta argitaratu gabeko 300 irudi inguru jaso dira, berrogeitik gora norbanako eta erakundek egindako dohaintzen emaitza gisa, hain zuzen.

9.- SABINO ARANA SARIEN KULTUR JAIALDIA



Frank Gehryk, Guggenheim Bilbao Museoa diseinatu zuen arkitektoak, Iberdrola argindar-konpainiak, Virginia Berasategik, Helena Tabernak, Gureak Taldeak eta Pedro Miguel Etxenik jaso zituzten XXII. Sabino Arana Sariak, “euskal kulturari eta euskal balioei dieten begirunean oinarrituta”, kanadar arkitektoak berak esan bezala. Ekitaldia urtarrilaren 30ean, igandearekin, egin zen.

Frank Gehryk adierazi zuen, “pozez zorutzen” duela Bilbora “itzultzeak”; baina “ez bakarrik” berak diseinatutako eraikina ikusteko, ezpada ze, baita Bizkaiko hiriburuko jendearekin eta adiskideekin berriro egoteko ere”. Gainera, azaldu zuen, bere familiarekin etorri zela, herri hau ezagut zezaten, “oso begirune handia dielako kultura honi eta beraren balioei”.

Iberdrolako presidente Ignacio Sánchez Galánek, bere aldetik, adierazi zuen ezen, sari hau Iberdrola sortu eta haztea posible egin zuten “euskal belaunaldi askoren izenean” jasotzen zuela, zeren joan den mendeko 20ko urteetatik “aitzindari haiek zerbait handia egiteari ekin baitzioten”.

Ildo horretan, azaldu zuen, pertsona haiek argindar-enpresa sortu eta handik gutxira saldu egin balute, “seguruenez orain ez zatekeela existituko”, ezta “enpresarekin batera” etorri den ehun industrialara ere. “Eta diruak xahutu egingo zituzketen”.

Bere aldetik, Pedro Miguel Etxeniketik “euskararekin duen konpromisoa” aldeztu zuen, zeren jadanik, duen adinarekin, “beti politikoki zuzena denaren zain egon gabe” hitz egin baitezake, bai halaber beren-beregi eta agerian bere esker ona erakutsi sari hauek ekarri dituen “tradizio” politikoari, hau da, “euskal abertzaletasun demokratikoari, autogobernuaren eta balio batzuen defentsari”, hain zuzen ere euskal herritar guztientzat eta euskararentzat sortutako ongizatea direnez gero”.



Euskarari dagokionez, azaldu zuen, euskara dela hizkuntza bat “guk galtzen badugu den-denek betiko galduko dutena”, eta nabarmenki azpimarratu zuen, “euskara gorestekoa modurik onena bera erabiltzea dela”.

Gureak Taldeko presidente Iñaki Alkortak azaldu zuen, bere konpainiak “lan-munduan sartzea zail dutenak laneratzen saiatzeko eginkizuna bereganatu duela”, ahalmen-urritasuna, mota batekoa zein bestekoa, dutenentzako enplegua bilatzen baitu.

Beste alde batetik, Virginia Berasategi triatletak eskerrak eman zituen, saria emakume bati, eta hori ez ezik, aldi berean, “oso jende gutxirena den eta orain nik aurpegia ipintzen diodan kirol bat” ere ordezkatzeko duen emakume bati, ematen zitzaiolako.

Azkenik, Helena Taberna “biziki pozarren” agertu zen, zeren lehendabiziko aldian baitzen Sabino Arana Fundazioak zineari sari bat ematen diona”, ezen “herri batek zinea behar du eduki, dokumentala nahiz fikziozkoa, beraren historiaz mintzatzen den zinea, horrek guztiak gizartean bizirik dauden zenbait gairekiko gogoeta sorraraziko baitu eta gure ondarea geure ondorengoei utziko baitiegu”.

Sari-banaketa kultur jaialdi baten babesean gauzatu zen; kultur jaialdia edo gala Anne Igartiburuk gidatu zuen, Demodé Quartet taldearen emanaldia gozatu ahal izan zelarik. Bertan izan ziren, besteak beste: Idoia Mendia, Eusko Jaurlaritzaren eleduna; Iñigo Urkullu, EAJren EBBko lehendakaria, bai eta alderdi horretako kargudun ugari; Juan Ignacio Vidarte, Guggenheim museoko zuzendaria; Iñaki Goirizelaia, EHUko errektorea; Mario Fernández, BBK-ko lehendakaria; edo Jose Antonio Ardanza lehendakari ohia.

10.-DURANGOKO AZOKA

Durangoko Azoka

Abenduaren 4tik 8ra Fundazioa beste behin egon zen, “stand” birekin, Durangon urtero egiten den euskal liburu eta disko azokan, non Fundazioaren azken argitalpenak eta berritasunak erakutsi eta salgai ipini genituen.

Esan behar da, berriro ere positiboa izan zela esperientzia.

11.- BESTE ERAKUNDE EDOTA INSTITUZIO BATZUEK ANTOLATUTAKO JARDUERETAN PARTE HARTZEA

Sabino Arana Fundazioak bere izaera zabalagatik zenbait elkarlan gauzatu ahal izan ditu beste erakunde eta instituzio batzuen ordezkariekin, berez egin ohi dituen jarduerakoez gainerakoak, alegia.

Halakoak 2011n hurrengo hauek izan dira:



Orain dela urte batzuek geroztik, dagoeneko ohiko bihurtu delarik, eta Euskadiko *Irmandade de Centros Galego*ekin (Galiziako Etxeen Elkarte) elkarlanean, martxoaren 14an gorazarrea egin zitzaion Castelaori, Sabino Arana Fundazioak haren oroimenez eraikitako monumentuan.

Beste alde batetik, Sabino Arana Fundazioak Gernikaren bonbardaketaren biktima guztien oroimenez apirilaren 26an egin zen lore-eskaintzan parte hartu zuen EAeko agintariekin, alemaniar udal zenbaiten ordezkariekin, beste erakunde batzuekin eta Gerra Zibileko biktimen senitartekoekin eta handik bizirik atera zirenekin batera.

Bestalde, 1512an gertatutako Nafarroaren konkistaren V. mendeurrena oroitzeko jardueren barnean, Nabarralde elkarteak antolaturik eta, bertzeak bertze, Sabino Arana Fundazioaren laguntzarekin, Euskal Herriko Historialarien II. Biltzarra egin zen Bianan, irailaren 16an, 17an eta 18an.

12.- HEDAPENA ETA KOMUNIKAZIOA

Dauden estatistiken arabera, 2011n gure web orriak 79 herrialdeetako internauten 17.600etik gora bisita jaso zituen. Gure atarian daukagun informazioaren ia 67.000 orri (edo bider) kontsultatu dira.

Instalazioak Bilboko egoitza berrira lekualdatzeak urte horretako jarduerak geldotzea ekarri bazuen ere, gure Fundazioaren web orriak 2010eko bisita kopuru orokorrari eutsi ez ezik apur bat gehiago ere izan ditu 2011n, eta gure web orrian lehenengo bider sartu diren bisitari berriei dagokienez, 2.000 gehiago izan dira aurreko ekitaldiaren aldean.

Web orriak berak duen egiturari eta beraren programazioak eskaintzen dizkigun aukerei esker, Sabino Arana Fundazioaren jarduerak aldizka hedatzen dira informatikoki Mezu@ buletin elektronikoaren bitartez, 6.000tik gora kontaktutara heltzen delarik.

Gure edukiak eta zerbitzuak Interneten gero eta gehiago agertze horrek bere isla nabaria izan du jaso dituen kontsulta eta eskarrietan, Abertzaletasunaren Agiritegiak, web orrian ostatutako formularioen bitartez, jasotakoak, adibidez, eta ondorioz orain artean erabilitako bitartekoen (e-posta eta telefonoa) aurretik jarri da.

13.- BURUTUTAKO JARDUEREN EMAITZEN BALIOESPENA

2011 mugarrira izan da Sabino Arana Fundazioaren historian, izan ere, bere organo eta jarduera-arlo guztiak (Sabino Arana Fundazioaren egoitza, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegia eta Museoa eta Hermes pentsamendu eta historia aldizkaria) leku berean, Bilboko instalazioetan, bildu ditu, bere GOAZ museum eragiketa-gunean, alegia.

Hala ere, jarduera-arlo guztiak batzuek zeregin gaitz eta neketsu bat ekarri du: funts eta material guztiak, hala Agiritegikoak nola Museokoak, lehen Artea Arratian zuten kokalekutik Bilbora eramatea eta horko instalazio berrietan ostera ere birkokatzea.

Agiritegiari dagokionez, horko funts antolatu eta deskribatuak dagoeneko badaude ikertzaileen eskura, Artea Arratian zeuden baldintza berdinetan, nahiz eta Bilbon, programa informatiko barri bat erabiliz, zerbitzuaren antolamendua hobetzeari ekin diogun.

Bestalde, GOAZ museum – Euskal Abertzaletasunaren Museoa, behin egitamu museologikoa gertatuta, egitamu museografikoa bururatzen ari da, egitamu museologikoa aplikatzeko proposamena egikaritzen, alegia.

Horregatik guztiagatik ere, 2011n gogoeta eta elkarriketarako mintzagunean jarduera asko garatu dira. Mintegiak, besteak beste: “Europa eta Milurtekorako Garapen Helburuak”, Arrantza Politika Erkidearen Erreforma”, “Bake bila baikor: erronka gaindigarria”, “Energia eta gizarte lehiakor eta jasangarria”, “Hiru harroin, lotura bat: Artea, Zientzia eta Teknologia”, IV. Bilboko elkarriketak”, etab. Eta hitzaldiak, hizlari izan direlarik, besteak beste: Anna Dumitriu, britainiar artista eta Ez Beharrezko Zientzien Institutuko zuzendaria; **Francisco Ruiz Antón**, Googleko Politika Publiko eta Gai Instituzionaletarako zuzendaria; **Ernesto Penas**, Europar Batzordeak arrantza-politikaren arloan duen estrategiaren zuzendaria; **Jose Luis San Pedro**, Iberdrola Taldearen Negozioetarako zuzendari nagusia; **Nour Aldin Shehada** (palestinarra) eta **Avner Horwitz** (israeldarra) Bakearen aldeko gudulariak –CFP— erakunde palestinar israeldar erakundeko kideak eta **Andrea LeBlanc** “*Peaceful tomorrows*” elkarteko kide iparramerikarra; **Juan Maria Uriarte**, Donostiako gotzain emeritua; **Iñigo Urkullu**

EAJ-PNVren EBBko lehendakaria; Iñaki Azkuna Bilboko alkatea; **Nuria Lopez de Gereñu** Confebaskeko lehendakaria, etab., oso interes handiz jarraituak, bestalde.

Azpinarratu behar da, bestalde, gure deialdiak irekiak izaten direnez, haietan edonork parte har dezakeela, hau da, euskal gizarte osoa dela gure jardueren onuradun. Gogoeta eta elkarrizketarako mintzagunearen hitzaldiek eta mahai-inguruek, batez beste, 150etik gora entzule izaten dituzte, eta mintegiei dagokienez, berorietan aztertzeke hautatutako arlo bakoitzeko 30 eta 40 bitarte adituk parte hartzen dute.

Beste alde batetik, Euskal Abertzaletasunaren Agiritegian eta Museoan artatzen dituen funts ugari eta askotarikoak jende artean hedatzea xede, Sabino Arana Fundazioak erakusketak antolatu ohi ditu Euskadi guztian, bere funtsetan gordeta dituen material historikoak, hala agiritegikoak, nola liburutegikoak, hemerrotekakoak, nahiz museokoak eta beste, erakusteko.

Erakusketak, kokapen geografikoaren eta iraupenaren arabera, batez beste, 800 – 1.000 bat pertsonak ikusten dituzte, kasuren batean 5.000ra ere iritsi delarik.

Beste alde batetik, orain dela hamaika urte sortu zenetik, dagoeneko HERMES pentsamendu eta historia aldizkariaren 40 zenbaki argitaratu dira.

Hamaika urte honetako esperientziak eta jaso ditugun iritziek eta iruzkinak orain artean izan dugun ildoari eustera adoretzen gaituzte, hots, elkarrizketa eta debate ideologikorako tresna gisa, pertsonen eta herrien askatasunerako eskubidea, bai halaber gizarte- eta politika-taldeen askatasunerako eskubidea berrestera, autodeterminaziorako eskubidea herrien askatasun politikoaren adierazpide dela onetsi eta agertzeaz batera, eta, era berean, euskal gizartearen izaera anitza bereganatuz, izan ere, gainera, hark abertzaleaz bestelako politika eta gizarte agerpenak aintzatestea exijitzen du.

Finkatu den gure beste kultura-jarduera bat Sabino Arana Sariak da; Fundazioak sari horiek bere jarduerekin hasteaz batera, 1988an, eratu zituen. Hastapeneko nahia eta oraingo asmoa berdinak dira, hau da, gizartea zerbitzatzeko joranagatik eta horretan ipinitako gogo biziagatik nabarmendu diren erakundeei zein norbanakoei omenaldi zintzo eta bihotz-bihotzekoa eskaintzea besterik ez.

Sabino Arana Sariak sortuz geroztik urterik urte, huts egin barik, eman izanak sendotu eta sustraitu egin du saria, zein Sabino Arana Fundazioko kideek, egindako lanagatik gailendu diren kolektiboei eta, norbanakoka, bakoitzak xede izan duen kausaren alde egindakoagatik nabarmendu diren pertsonari eman ohi baitiete euren esker onaren erakusgarritzat.

Bide horretan, bada, Sabino Arana Fundazioak baditu gizarte- zein politika- arloetako oso gizarte-oinarri ugari eta askotariko baten aintzatespena eta sostengua.

Kultura-gertakari horretara batez beste 1.000 bat pertsona etortzen dira urtero.

Beste alde batetik, beste erakunde eta instituzio batzuekiko harremanez denaz bezainbatean, haietariko hainbaten ekitaldietan parte hartzen dugu gogara (Euskadiko *Irmandade de Centros Galegos*, beste fundazio batzuk, udalen ordezkari zenbait, ikastetxeak, etab.).

Emandako zenbaki eta datuen argitara, uste dugu, behar bezala bete ditugula aurreikusitako asmoak eta helburuak.